



Assumpta Ayerdi Olaizola

Bere formakuntzak historia garaikidea, soziologia eta feminismoa bateratzen ditu; horrez gain, esperientzia profesionalaren eta militantziaren aldetik, garapenerako kooperazioan nahiz herri-hezkuntzan da aditua eta aritua.

Hego-ekialdeko Asiako eta Hego Amerikako hainbat herri eta elkarterekin egin du lan, askotan emakumeen ahalduntze-prozesuen bidelagun. Euskal Herrian, zenbait erakundetan eta Lanbide Heziketako ikastetxetan berdintasuna sustatzeko prestakuntza-saioak burutu ditu, bai materialgintzan, bai komunikazioan nahiz kudeaketan ere.

2018 hasieratik, *Sorginlore* Gizarte Elkartean lanean dabil, eta bertan ekintzailatza soziala eta eraldaketa sozial feministaren aldeko konpromisoa uztartzen ditu.